

HORIEN GUTI-ESTEIA EZ DUGU HEL-BURU NAGUSIA

Iñaki Aginaga

"Kontituzioa-ren errespetu osoan ekin behar da, handik asi behar, bixtan da". (Iratzarte). Guk-baino begi zorrotzago duke, gure bixtan ez bai-da holakorik ikusten. Ez zuten Aragoi, Frantzi ta Erroma-ko jabeak Napar-erresuma-ren konstituzioa errespetatu, ez ziren inolaz ere hartatik asi, Euskal-herriaren askatasuna suntsitzekotz. [Hala funtsatuak dira, Napar-erresuma-ren lurralde erdibitu ta okupatueta "konstituzioak". Hala ere oroz-gainetik errespetatzen ditu gure lege-zale zuzenak. Handik ezarriak, "de facto" ta "de jure" on-hartzen eta zaintzen dute gure lege-zale jelostuek.]

Horien guti-estea ez dugu, egia esan, hemengo hel-buru nagusia. Kontuan eman behar dugu hala ere, inork ez ziotela azaldu guk egunero entzuten ditugunak. Entzun ba-lituzte, super-herri polita moldatu luketea? Eta munduan izan diren herri, zuzendari, eta gudari ergel eta itsu guztiek jakin ba-lituzte, indarrik-gabeko mundu miresgarria genukea? Gizon on zintzoek itzaren eta arrazoin hutsaren bidez beti irabazten duten eta krokodilek tipulak jaten dituzten mundua, biztanle guztiak pake betean zoriotsuak, tipulak ezik.

"Askatasuna ez da inposatu behar, hauteskundeetan (frantzi-espainarrek muntatutako "hauteskundeetan" noski) irabaziz-gero erreferendum bat, (edo bi edo hiru edo lau) egin behar da", (inperializgoaren-pekota bera ere). Napar-erresuma okupatzeko ta Euskal-herria menperatzeko ez zuten erreferendum eta hauteskunde-beharrik izan Aragoi ta Frantzi-ko erregeek, ez Franco generalak, ez-eta Erroma-ko Aita Saindua-k ere. Inork ez zioten holakorik eskatu. Bainan Euskal-herria-ri zor zaion askatasuna ber-eskuratzeko, berebiziko kondizioak "inposatzen" dituzte, napar-erresumaren zapalkuntza de jure ta de facto onhartzen dutelarik. Hori dek demokrazia, hori! Inperializgoaren ideologia irentsia dute holakoek. Askatasun eta bereiztasunaren xedeak aitortzeko ere lotsa dagoz holako "abertzaleak", heen estaltzeko ideiak ta izen "berriak" erabiliz. Askotan Lenin-ek idatziak ere aipatzen dituzte, irakurri ez dituztelarik, edo-ta irakurriz-gero hitzik ulertu gaberik. Herri-askatasuna gabe ez da demokraziarik, eta menperatzaile atzaparretatik berezi-baino lehen ez dago askatasunik. Hori ulertu ez duenak demokraziaren konzeptuak ankaz-gora ematen ditu, zapaltzaileen probetxu.

"Hel-buruak itz-egitearen itz-eginaz lortzen dira, urte hontan ez ba-da urrengoan, eta orduan ere lortu-gaberik, ba-dago beti-ereko loria", ("azeri zahar" zuzendari ospetsu baten esanez, herriek ez dute hor sartzerik, arima ez duten-ber). (Sheifler, Ajuriagerra). "Alderdiek behar lukete elgarrekin mintzatu bakeari buruz, sobera alderdikari agertu gabe, gobernuak behar luke arrunt beste gisa bat apailatu, lañoki eta gizonki, dena espantu, larderia eta mehatxu tematzeko partez. Hala elgarretaratuz maiaren inguruan auzi xumeak konpontzen direla ikusiz asiko dira haundiagoak konpontzen, eta hemeki-hemeki pakea lortuko da". (Iratzarte). Pakearen eta besteren funtsezko kondizioak ez direnean, indarren eta indarkerien arteko joera baliagarria gabe, bizi osoa pasa dezakete alderdi ta gobernuak maiaren inguruan, ez delarik

hortik ezer onik aterako.

"Politigoa eta indarra ezin-elkartuak dira. Indarra ez da inolaz ere erabili behar", inperializgoaren eta fazizgoaren alde ez ba-da, noski. "Indarkeriaz baliatzen direnak ez dira gizonak, basa-piztiak-baino, gizonak bezela bizi izan behar dugu, ez abereak bezela". (Ibarretxe). Indarkeriaren bidez españar gobernuaren babes-pean, harek ebatsitako zergen kondu. "Orotatikako indarra" egunero arbuiatzen dituzte hortzetaraino harmatu gobernuek. "Helburu eder, iustu, bikain eta maitagarrienak odol-tanto bakarra ere ez du balio". (Imaz). Odol-tantoak ezik odol-ibaiak hedatu dituzte, hedatzen eta berriz hedatzeko prest dagoz holako fartzuntziek.

"Pakea izan behar dugu oroz-gainetik", gudaz-guda ta orotako indarkerien bidez menperatutako ta zapaldutako lurraldeetan, noski. Bainan, "menperatzailea beti dugu pakearen adizkide", nahiago bai-ditu beste herriak lasaiki ta etsairik gabe eskuratu. Eskuratuz-gero ere, beti pakean egon nahiago du, menpekoek berak nahi duen guztia egitekotan.

Pakearen alde dagolako "alderdi" horrek [Batasuna-k] ez ote luke haatik erakunde armatuaren morrointzatik libratu behar? Memento berean, su-eten iraunkor bat eskatuz! Euskal herriarentzat ez da bertze biderik. (Jorajuria).

"Gerla zer gauza hitsa! Noiz ezarriko dute (eta dugu) denek burutan gerlarik ez litakeela gehiago behar! Gerlarik ez eta bortizkeriarik ez, denek denen eskubide premiatsuenaz axola poxi bat ukanez geroz! Kargudun horiek bereziki denak doi bat zentzuz eta bihotzez jokatu, biarnes zahar horren deia entzunik nolazpait, jendetasunaren izenean..." "Bosnian eta hor gaindi ari den gerla zikina-zikina diogu, nahiz gerla garbirik ez den, ez izaiten ahal ere". "Ene partetik, eta aski errana ahal dut, bortizkeria ez dut onhartzen, ez bai zaut atera-bide bat. Bortizkeria batek ez baitu handiagoko bortizkeria bat baizik ekartzen goiz edo berant, eta gero denak beti eta makurrago baitoatzi. Bortizkeria gauza hitsa da, biziki hitsa. Bainan hori hola dela eta, ez da arrazoin bat gaixtagin huts bezala ekartzeko lurra baino hamar zehe apalago bizirik ehortziz, bortizkeriaren bidetan galduak dabilzanak". "Bortizkeria ez da deus gisaz atera-bide bat, bortizkeria batek beste bortizkeria ekartzen duela eta beti hola, gero ta makurrago, herra eta mendekioa direlarik gisa hortan nagusitzen. Holako nahasmenduak guziz kaltegarriak dira eta ezin onetsiak. Zentzu poxi batekin eta borondate on poxi batekin, hainitz gauza onerat itzultzen ahal litazkeelarik. Bide hori hartzen ez ba da, izanen dela berriz ere nigar, sofrikario, pairamen eta gaineratik. Bainan zazi zu horren konpreni-arazterat arrunt asalatuak dabilzan batzueri. Holakoekin, zorigaitzez, ez ditake aise arizan arrazoinka, itsutuak bezela daude, hasarre gorrian. Jestu guziz igorriko zaituzte antzara perratzerat". (Iratzarte). Idazle horren iritziaz, Frantziar talde harmatuak pake-zale maltsoak-besterik ez dira, edo gorenaz ere "pentsalari" bereziak. Inoiz ere heiekin arrazoinka arizan dea?. Makilaren laztana senditu-baino nahiago duke antzara perratzerat. "Pentsatu"-besterik egiten ez duten "pentsalari huts" horiek Euskal-herria menperatu dute, muga-gabeko indarkeriaren bidez. Hori da Iratzarte-k izkututzen duen egia hutsa.

"Euskal-Herriak baduela bakearen beharra eta bortizkeriak ez duela deus onik, hori du azkar errepikatu euskal gobernuburuak. Bainan gisa hortako deia entzun nahi ez duenak ez badu entzun nahi, zer egin behar da? Zer egin dezake euskal gobernuak berak ere?". (Iratzarte). Oso ederki esana, hain zuzen hortxe bai-dago gakoa eta hortantxe asten da politigo osoa, bestelakoan haren beharrik ez genuke-ta. Zoritzarrez ez digu arrapostu-izpirik ematen. Gauden begira zer esanen digun "datorren zenbakian".

"Bixtan da, [Herria 2748]

"Bainan nola bil ixlamista horiek jendetasun izpi baten bederen ukaiterat? (Muslaria).

"Belgrad-en serbiarrek erre dute telebixtaren egoitza eta hola askatu dute telebixta; joanden larunbatean erre dute Euskadi irratiko ordezkari Baionan. Hori ez zen askatasunaren alde. Demokrazian komunikabiden kontra jokatzeko salbaikeria da". (Haritzelarre). Ederki esana: "demokrazian". Menperatzaileen ideologian demokrazia eta herrien askatasuna gauza bereziak dire. Ez da ordean demokraziarik herriaren askatasuna ukatua delarik, hura bai-da "giza-eskubideetan lehena eta beste guztien aintzinako kondizioa".

"Batzuk diote "iraultza-zerga" gauza zikina dela, bortxatzen baita norbait diruaren emaita. Nik ere hala uste dut, bainan zer diferentzia da iraultza zerga eta lan baten ukaiteko lantegi nagusi batek behar duelarik, aspiz, dirua eman nasaiki alderdi politiko batentzat. Ez ote dea iraultza zerga baten idurikoa? Egia da lehena beldur dela bizia gal baitezake, bainan bigarrenak ez balinbadu dirurik emaiten ez du lanik ukanen. Non daude zikinak eta badirela zikinagoak?". (Haritzelarre). "Legeen kontrako" zerga horik salatzen dituelarik, ez dateke egilea konturatzen zerga guztiak direla bortxaz kenduak. Bestela eginez diru guti eskuratzen luke gobernuak.

Ez duke idazleak ikusten nork-nola muntatu zuen frantziar gobernu eta nondik datorren bere ahalmena. Haren ustez, arrazoinamendu hutsen bidez, harmarik -ta indarkeriarik- gabe sortua ta gordea da, edo-ta "konstituzioak agindua". Bainan nondik dator holako Konstituzio sakratua? Ala zerutik eroria?. Formazko-konstituzioaren aurrean eta funtsean beste konstituzioa ba-dago, biok indarraren bidez sortu ta atxikiak. Nola "agintzen" dute halako aginduek? Indarraren bidez, indarririk gabe ez bai-da agindurik ere.

Pake-zale porrokatuak direlako berritsu horiek ez dute gobernu haundien indarra ta bortizkeria muga-gabea aipatu ere egiten. Nahiago dute izkutatu, haren babesean kerizpetaturik ahulagoen indarkeria salatu ta gaitzestu. Sentimendu "on, xamur eta estiz" beterik dagoz holako peredikuak. Fede onez ari baldin ba-dira, "bixtan da" ez dutela sudurra aurpegian ere ikusten. "Zentzu-poxi bat" ere falta ba-zaiote, hobe luke ixilik egon eta ikasi. Ez du maixuarena edo pake-zalearena egiteko estakururik.

Beti-ereko zapaltzaileek halaxe estaltzen dute beren egiazko ahalmena, herria hobe menperetzekotan. Abantail guztiak izan nahi dituzte. Alde batetik, irudi beldurgarria azalduz, bestetik aita ta ama amultsuena eginez. Herriak indarkeria beteaz zapalduz, aldi berean agertu-arazi nahi dute jende guztien maitagarri laztanak, Jaungoikoa-ren edo demokraziaren

graziaz, bai-ta indarkeria guztien etsai pake-zale amorratuak.

Indarra ta indarkeriaz mintzo denak, gobernuen indarra aipatu behar du oroz lehenik. Holakoa ikusten edo aipatzen ez duena ergeldua ala gezurti ahalena-besterik ez da. Bi kasuetan inperializgoaren eta fazizgoaren gizon eta zerbitzari.

Azpiko joko hori agerian ematen ba-da, ba-dute holakoek bigarren lerroko aterbea: Indar "ona"-ren alde direla, eta indar "tzarra"-ren kontra, berena "bixtan da" ona dela, eta besteena gaiztoa. Bi esan-molde horik ezin-elgarretaratuak dira, logik hutsari begira. Indar "ona"-ren alde dagona, ezin-egon daiteke aldi berean indar guztien kontra. Indar guztien kontra dagona ezin-egon daiteke aldi berean indar "ona"-ren alde. Faziotiarren ideologiak, noski, ez du kontra-esaera horien ajolik. Holako astakeriak etenik gabe errepikatuz komunika-bide orotatik, jendea arras ergeldu egingen dela uste omen dute.

"Iraultza harmatua" zelakoa miresgarria zedukan batek, polizi horren alde dago oraingoan; "Horrekin ez dut erran nahi jujatu gabe uzten ahal zirela: bere burua zain dezake bai Estatuak, eta funtsean hortako egina da". (Davant). Nola debru "Estatua" bere buruaren zaintzeko egin daitekeen ez da errex ulertzeko. Lehenagotik egina ez dana ezin-zain daiteke, eta egina dena ezin-sortua da. Behin eta berriz esan behar da inperializgoaren ideologiak ez duela formazko-logikaren ajolik, komeni zaion neurrian. "Eta nolaz legea zangopilatzen du jaun batek, legea besteeri errespetarazi behar duelarik?". Estatua eta legea frantziarren Estatua eta legea beti dagola, biztan da.

Napar-erresuma ta Euskal-herria menperatzeko, neurri-gabeko indarkeria erabili zuten espanar eta frantziarrek, eta ez hitzaldi paketsuak. On-hartu, sustatu ta bultzatu egin zuen Erroma-ko Aita Saindua-k ere holako indarra, ona ta saindua zelakoan. Aurka egiten zutenak berriz betiko oinazetara kondenatu zituen beste mundurako, hemengoan zapaldu, ebatsi ta zerbu egitera.

"Kristauen sekta bitxia" oraino ahula zegoen aroetan, neurri batetan indarra arbuiatzen zuten batzuk, (bainan "Ep. Ad Rom." eta beste ahaztu-gabe). Erroma-ko inperioan gero ta indartsuago bilakaturik, asia zen Eliza pausuz-pausu bere ikuskera gogortzen. Nikomedeia ta Milan-go aginteak (311, 313) agertuz-eta segidan (314), Arles-ko kontziliuak exkomunikazioaz kondenatu egin zituen sobera pakezaleak, hala nola Montan-en segitzaleakeak. Erroma-ko sortaldar-dezpotizgoa gordetzeko ta holako berria muntatzeko ahal-eginez-gero, barbarren edo feudo-jabeen aroari egokitu-beharra zegoen. Hauk ere ahultzen ari zirelarik, dezpotizgo berrien artean gorengo lekuaren bila zegoen Eleiza. Gero ta baliatzenago zuen "jus gladii" zelakoa, bere eskuz ala munduko erregeak artekotzat erabiliz, guda eta tortura "hala beharrean", peredikatur, bultzatur eta benedikatur. Doktrinak ez zuen izkututzen, ("Ad extirpenda" 1252, "Ausculda fili 1301, "Rem non novam" eta "Unam Sanctam" 1302, "Licet" 1327, "Dum diversas" 1452, "Romanus pontifex" 1454, "Aeterni regis" 1481, "Eximie devotionis", "Inter coetera", "Inter coetera" bis, "Piis fidelium", "Dudum siquidem", 1493, "Licet" 1542, "Ad assiduas" 1775, "Inscrutabili" 1878, "Arcanum 1880, "Au milieu" ta "Cum multa" 1882, "Au milieu des sollicitudes" 1892, "Inmortale Dei" 1885, "Libertas" 1888, "Vehementer nos" 1906, "Singulari 1912, "Ad beatissimi" 1914, "Ubi

arcano" 1922, "Pacem in terris" 1963). Eleiza-ren "mundu hontako" -goburu bereziak- (VIII-an hasi) berenez guda haundiak ere sustatu zituen (XVI-an batez-ere). "Kristau erreljioak ez du bakarrik materizko-indarra jasaiten, eskatu ta agindu egiten du. Gaizkiari ez ihardokitzea ez dugu kristau-idea, kristau-heresia baizik". Ezin-elkartuak dira egiazko fedea ta indarrari-eza.

Erreljio-guda, guda santu, gurutzada eta besterik, munduan bakan gertatutako oinaze ta sarraski haundienetakoak jasan behar izan zituen gizadiak. "Aro hartan hain zuzen, fedegabekoen pekatua hain lodia zeukaten, non zigorreztaatu behar bai-zen sugarretan honako munduan eta betirako oinazez haraindikoan". Bestalde, "fedea mila bider garrantzi haundiagoa zuen morala-baino". Jaungoikoa-ren hipostasizko-hirurtasuna edo lurraren gelditasuna aitortzen ez zuena bizirik erre behar zen, inolako oinazeak jasanez-gero. Milaka gizon, emakume eta haurrak garbitzen zituenak (Jerusalem 1099) ez ziren frangotan kondenatuak (Thesalonika 390). Barkapena oro har ez zen oso garestia, indartsu ta aberatsa izanik. Sarraskiak fedearen onean egiten ba-ziren, saindu etortzeko ere bide egokia zegozen.

Toulouse-ko kondegoan, fede-gaiztokoak ehundaka sutaldi berean bizirik erre-araziz eta, bizirik aurkitzen ez zenean, lurperatutako hilak ere erretzeko jalgiz, bestetan alderantziz biziak bizirik lurperatzen zituztela (Béziers 1209, Marmande 1212). Beren ideiak arnegatu nahi ez zutelakoan 212 lagun bizirik erre zuten sutaldi berean (Montsegur 1244). Paris-go kaleetan (1572) gizon, emazte eta haurrak arrastaka zeramazten, lehioetatik edo ibaiera egotziak, biluzturik ta esteak jalgiz, gorputzak zatikatuz eta metatuz Jaungoikoa-ren eta Errege-ren zerbitzu. Holakoak jakinik, España ta Erroma-ko eleizetan Te Deum laudamus eta Deo gratias ari ziren, ezkilak errepikan jotzen zituztelarik festa berezien alegeartzeko.

Ez du aspaldi Frantzi-ko apezpikoen karta famatuak argi ta garbi finkatzen zuela frantziarren eskubidea eta obligazioa atomozko-indarra hala-beharrean erabiltzeko. Ondo zekiten edo jakin behar zuten emaileek berhogeitamar milloi gizon, emazte ta haurrak ordu gutitan erahiltzeko muntatua zirela "force de frappe" famatuaren zartagailuak. Batzar haren lagun zela Pau-Oloron-go titulu-dunak, salatu zuen aro berean Baiona-n ezarritako esku-lehergailua. "L'actualité départementale [sic] (...) nous apprend la découverte d'une charge explosive devant un poste de gendarmerie. Désamorcée à temps, on en fut quite pour la peur. Mais cette bombe aurait pu entraîner mort d'hommes, de femmes, d'enfants. Quelques jours avant déjà, de semblables actions s'étaient produites ailleurs. Nous voudrions redire une fois de plus avec toutes les personnes de bonne volonté, notre opposition totale à de tels agissements. Rien, absolument rien ne peut les justifier. Personne ne peut les approuver. (...) Donner la mort c'est tuer sic]. Vouloir donner la mort c'est tuer. Coopérer à la mort c'est tuer. Menacer de mort c'est entrer dans l'acte homicide. Fabriquer des bombes, participer à leur conception, leur transport, leur vente, leur pose, c'est participer à l'univers du crime". Ageri dago Jaun Apezpiku-ari bonba xumeak ez zaizkiotela batere laketa, lodiak (oso lodiak eta atomozkoak) bakarrik laketa ditu, batez ere Frantzi-ko gobernuak zartatuak edo paratuak Frantzi-ren intresen zerbitzu. Holako bonba leher-araztea, "ce n'est pas tuer". Dena dela, miloika ere jendea erretzea eta hil-araztea frantziar kristauen obligazioa omen da. Euskaldunek "kultur-eskaerak" egin ditzazkete, "legezkoak" dira-ta, bainan haratago joan gabe, bestelakoan Euskal-herria-ren "irudia histen" bai-dute, omen. Frantzi-ren "irudia" ez da

inolaz ere "histen", ez Vietnam-en, ez Aljeria-n, eta ez "hala-beharrezko" atomozko guda batetan, politigoari dagozkionak beraz frantziarren eskuetan beti utzi behar. Euskaldun gazteek oso kontuz ibili behar dute: "Arrêtez. Vous cassez tout". "Ne cédez pas à la fascination de l'héroïsme mal compris. Ne vous laissez pas manipuler". Frantziar harmadan gazteak ez omen dira "eskuztatuak", (frantziar eleizan ere ez). Germanen edo aljeriarren kontra guda egin dutelarik, ez dute ezer-ere puskatu, inork ez ditu lilluratu. Ba-dute Eleizaren benedikazioa, Frantzi-ren ta Eleizaren onerako egiten bai-dute. Aise ikusten da pentsaera horren funtsa: euskaldun zorritsu horiek ez dutela ez baliorik, ez naziorik, ez erresumarik, frantziar hutsak bilakatuz ezik.

Guda haundienetan gudari "onen" garaitza eskatzeko edo eskertzeko otoitz egiten zuten, askotan bi aldetik. Euskaldun apaizek bultzatu-egiten zituzten euskaldun gazteak german gazteak lehertzerat, eta elizen alboan daduzkate hiltzearen hiltzeaz hil zirenen izenak. Franco generalaren gudarienak ere bai, besteak gorriak izanez eta España-ren zatikatzaile. Ikaragarritzko gurutzada hura asi ta irabazi zuten espainar fazistek alde zutela Eliza. Euskaldun apaiz batzu ados ez zirela, baztertu ta erbesteratu zituzten, torturatzailen eta eriotz-taldean eskuetan eman ez zituztenean. Poloni, Vendée edo España-ko apaizen eriotza gorestatu ditu behin eta berriz Wojtyla-k Popieluszko izenekoa Errusia-ren inperio gorria urratzen ari zela, Eleizaren laguntza osoaz. Euskaldun apaizek ez omen zuten poloniar batto balio, gorrien lagunak zirelako eta España-ren puskatzaileak, Gomá kardinalak esan bezela. Inork ez da aipatzera ere ausartu Wojtyla-en aurrean, ez sahetsean ere. Gaurko euskaldun apaizek ongi ulertu omen dute irakaspena, beldurra edo intresa ez dire ahanzteko errexak Napar-erresumaren lurralde okupatuetan.

"Que serait une communauté humaine sans service d'ordre et de sécurité?. Une cage aux fauves", dio berriz ere Pau ta Oloron-go Jaun Apezpiku-ak. Polizia, (frantziarra noski, ez baiduke besterik izan laitekela pentsatzen ere) beharrezkoa zaio Jaun Apezpikua-ri, bixtan dago. Pizti-kaiolan gertatzen dena-baino lehen, kaiola bera egon behar da, bera berez bortizkeria izanik, gizonen egin eta ez piztiak. Polizia ez ba-litz ez legoke pizti-kaiola. "Piztien indarkeria" salatuz, gizonen lehenagoko ta funtsezko-indarkeria izkutatu eta goretsi-egiten da aldi berean. Aldi beretik inperializgoa muntatua duen kaiola izkututzen eta goresten da, horixe bai-da hitzaldi osoaren egiazko-xedea.

Inperiotiar ideolojiaren funtsa mexprexua da. Delako gorengo-nazio baten arabera, menperatu nahi dituen herriek ez dute balio-izpirik. Hoberenaz, odola dute zikina, izkera tetele, kultura balio-gabea eta bizi-modua ezin-jasana. Berenaz ezin-baliatuz, ezin-utz daitezke halako egoeran. Beren onerako menperatu behar dira. Heiek ere pozik onhartzen, eskatzen eta azkenean hertsatzen omen dute egoera berri miresgarria, berak dira egiazko menperatzaileak. Bestalde, ahul eta buru-gabe izanez, ez dira gauza nola-bait kontra ihardokitzeko. Gauzak ez ba-dira esan bezela gertatzen, hasarre gorrian asten dira zapaltzaileak, holako basa-pizti erotuak lehenbailehen hil, giltzapetu edo erbesteratu behar direla, heien lekuan jende berri finak etor-araziz eta plantatuz.